



ZARAUZKO UDALA

EUSKAL ASTEA 2023

TRIKITILARI GAZTEEN XLIII. TXAPELKETA

Eguna: **Irailak 6, asteazkena**

Ordua: **19:00**

Lekua: **Lege Zaharren Enparantza (Modelo aretoa)**

OINARRIAK

1. Maila bakarra izango da:
Soinujoleak eta pandero-jotzaileak 20 urte bete gabe izango dituzte txapelketa egunean.
Famili Liburuaren kopia edo NAN aurkeztu behar da.
2. Talde bakoitzak bikote bat osatuko du: bi ilarazko soinu diatonikoa eta panderoa.
3. Parte-hartzaileek lau pieza jo beharko dituzte: trikitixa, porrusalda, fandangoa eta arin arina.
Hauetariko piezaren bat norberak sortutakoa bada, epaimahaiak baloratu eta kontuan izango du.
Izen-ematea egiteko garaian norberak sortutako pieza zein den adierazi beharko da.
4. Trikitilariak, trikitixa eta porrusalda koplaz lagundu beharko dute, baldintza hau derrigorrezkoa da.
5. Jotzen diren piezen originaltasuna mantenduko da, gehien bat fandango eta arin-arinetan.
6. Jantzera tradizionalaren ezaugarriak mantendu beharko dira (tiranterik ez eta abar).
7. Epaimahaiaren osaketa txapelketaren egun berean jakinaraziko da, eta behin betikoa izango da honen erabakia.
8. Gehienez zortzi bikotek parte hartu ahal izango dute txapelketan. Bikote gehiagok ematen badute izena kanporaketa egingo da eta, fandangoa jo beharko dute. Horrela balitz, aurrez jakinaraziko da.
9. Parte-hartzaileek, kanporaketan pieza bat jo beharko dute eta ezingo da finalean errepikatu.
10. Sariak:
 - 250 euro, txapela eta trofeoa.
 - 175 euroHerriko lehenengo bikotearentzat sari berezia.

Txapelketan parte hartzen duten gainerako bikoteek 70 eurotako dieta bat izango dute, eta kanporaketa gainditu ez dutenek 50 eurotako.

11. Izenak Zarauzko Udaleko Jai eta Ekitaldietako departamentuan emango dira (Kale Nagusia 30) 943.00.51.19 telefonora deituta, abuztuaren 25a baino lehen.